

150.200 langabe Euskal Herrian, aurreko hiruhilekoan baino 12.600 gutxiago (INE)

> 2017ko laugarren hiruhileko datuen arabera (EPA inkestari dagozkionak), Euskal Herriko langabezia tasa %10,19koa da (INE), aurreko urteko laugarren hiruhilekoan baino 1,26 puntu txikiagoa. EUSTATEk berriki kaleratutako datuen arabera, Euskal Herrian langabezia tasa iaz baino 1,15 puntu txikiagoa da eta %10,52an kokatzen da. Azken hiruhilekoan langabetuen bolumena apaldu egin da lurralde guztietan, Ipar Euskal Herrian ezik (+300).

> INEeko datuen arabera, azken hiruhilekoan langabezia tasa nabarmen jaitsi da, bereziki Araban (-1,91) eta Bizkaian (-1,08). Ipar Euskal Herrian, aldiz, 0,2 puntu igo da. Edonola ere, Ipar Euskal Herriko langabezia tasak Euskal Herriko apalenetarikoa izaten jarraitzen du (%8,55).

> 2017ko azken hiruhilekoan, Euskal Herriko langabezia tasa 0,8 puntu apaldu da, EB-28n ez bezala (+0,1). Hala, bi lurraldeen arteko aldea murriztu egin da, nahiz eta Euskal Herriko langabeziak Europako Batasuneko batz bestekoa baino 2,8 puntu handiagoa izaten jarraitzen duen (INE).

> Azken hiruhilekoko datuek Euskal Herriko langabezia tasa %10,80an finkatzen dute 2017an (INE), aurreko urtean baino 1,39 puntu azpitik. Hortaz, langabezia apaltzeko joera handia izan da aurten.

> Euskal Herriko lan merkatuan langabeziaren eragina apaltzen ari da, baina prekarietatearen itzalak handiegia izaten jarraitzen du. Esaterako, 2017 urtean langabetu gisa erregistraturikoen %61ak ez du langabezi-saririk izan, lan merkatuko prekarietate eta babesgabatasunaren ondorioz.

Langabezia-tasa eta langabe kopurua. Euskal Herria eta bere lurraldeak, 2012/2017-IV epea.

		LANGABEZIA-TASA									LANGABETU GORDINAK		
		2012	2013	2014	2015	2016	2017	2016-IV	2017-III	2017-IV	2016-IV	2017-III	2017-IV
EAE	INE	15,60	16,57	16,33	14,77	12,59	11,31	12,27	11,56	10,57	126.200	118.300	108.300
	EUSTAT	11,80	15,10	16,10	15,35	13,40	11,20	12,60	11,50	11,10	130.100	118.900	113.800
Araba	INE	16,57	17,51	17,20	15,01	11,99	11,27	11,97	10,95	9,04	18.800	16.600	14.100
	EUSTAT	9,43	15,08	17,08	15,95	13,60	11,50	11,00	12,10	10,80	17.000	19.100	16.600
Bizkaia	INE	16,89	17,76	17,32	15,99	14,21	12,70	13,75	13,42	12,34	75.000	73.200	66.300
	EUSTAT	14,20	16,73	17,23	16,65	14,90	12,60	14,00	12,80	12,80	75.700	69.100	68.900
Gipuzkoa	INE	12,97	14,12	14,26	12,67	10,26	9,02	9,95	8,73	8,43	32.500	28.500	27.900
	EUSTAT	8,90	12,48	13,93	12,98	11,00	8,90	11,00	9,10	8,40	37.300	30.800	28.300
Nafarroa Garaia	INE	16,16	17,93	15,71	13,83	12,49	10,24	10,01	10,52	9,63	30.800	32.800	29.900
Iparalde (*)	INSEE	8,57	8,97	8,82	8,89	8,60	8,38	8,55	8,35	8,55	11.900	11.700	12.000
Lapurdi	INSEE	9,35	9,78	9,64	9,74	9,44	9,15	-	-	-	-	-	-
Nafarroa Beherea	INSEE	4,57	4,73	4,95	5,01	4,58	4,44	-	-	-	-	-	-
Zuberoa	INSEE	5,20	5,56	5,50	5,38	5,28	5,08	-	-	-	-	-	-
EUSKAL HERRIA (*)	INE	15,09	16,17	15,51	14,03	12,19	10,80	11,45	11,03	10,19	168.900	162.800	150.200
	EUSTAT	12,45	15,14	15,36	14,44	12,78	10,76	11,67	11,00	10,52	172.800	163.400	155.700

(*) Ipar Euskal Herrian 2014 urtetik aurrera biztanleria aktiboaren estimazioa aintzat hartzen du. Urteroko berrikuspena.

Iturria: EUSTAT, INE eta INSEE. Ekoizpen propioa.

Langabezia-tasa. Euskal Herria eta Europa, 2012/2017-IV epea.									
	2012	2013	2014	2015	2016	2017(p)	2016-IV	2017-III	2017-IV(p)
Grezia	24,5	27,5	26,5	24,9	23,6	-	23,6	20,1	-
Espainia	24,8	26,1	24,5	22,1	19,6	17,2	18,6	16,4	16,6
Katalunia	22,5	23,1	20,3	18,6	15,7	13,4	14,9	12,5	12,6
Italia	10,7	12,1	12,7	11,9	11,7	11,3	12,2	10,6	11,4
Kroazia	15,8	17,4	17,2	16,1	13,4	11,1	13,2	9,5	10,6
EUSKAL HERRIA (EUSTAT)	12,4	15,1	15,4	14,4	12,8	10,8	11,7	11,0	10,5
Zipre	11,9	15,9	16,1	15,0	13,0	11,1	12,9	10,0	10,2
EUSKAL HERRIA (INE)	15,1	16,2	15,5	14,0	12,2	10,8	11,4	11,0	10,2
Frantzia	9,8	10,3	10,3	10,4	10,1	9,5	10,4	9,3	9,6
Portugal	15,8	16,4	14,1	12,6	11,2	9,1	10,6	8,6	8,4
Letonia	15,0	11,9	10,8	9,9	9,6	8,7	9,3	8,5	7,9
Eslovakia	14,0	14,2	13,2	11,5	9,7	8,1	9,1	8,0	7,6
EB-28	10,5	10,9	10,2	9,4	8,6	7,7	8,3	7,3	7,4
Finlandia	7,7	8,2	8,7	9,4	8,8	8,5	8,0	7,7	7,2
Lituania	13,4	11,8	10,7	9,1	7,9	7,1	7,7	6,6	6,8
Belgika	7,6	8,4	8,5	8,5	7,8	7,2	7,2	7,2	6,7
Eslovenia	8,9	10,1	9,7	9,0	8,0	6,7	8,1	6,3	6,5
Irlanda	15,5	13,8	11,9	9,9	8,4	6,7	7,2	6,9	6,1
Suedia	8,0	8,0	7,9	7,4	6,9	6,7	6,4	6,2	6,1
Bulgaria	12,3	13,0	11,4	9,2	7,6	6,3	6,7	5,9	6,0
Luxenburgo	5,1	5,9	6,0	6,5	6,3	5,6	6,4	5,5	5,4
Danimarka	7,5	7,0	6,6	6,2	6,2	5,8	6,1	5,9	5,4
Austria	4,9	5,4	5,6	5,7	6,0	5,5	5,6	5,5	5,2
Estonia	10,0	8,6	7,4	6,2	6,8	5,7	6,6	5,2	5,1
Errumania	6,8	7,1	6,8	6,8	5,9	5,0	5,5	4,7	4,8
Polonia	10,1	10,3	9,0	7,5	6,2	4,9	5,6	4,7	4,5
Erresuma Batua	7,9	7,5	6,1	5,3	4,8	-	4,6	4,4	-
Flandria	4,5	5,0	5,1	5,2	4,8	-	4,1	4,4	-
Herbehereak	5,8	7,3	7,4	6,9	6,0	4,9	5,4	4,5	4,3
Eskozia	8,0	7,2	5,9	5,7	5,1	-	4,9	4,0	-
Hungaria	11,0	10,2	7,7	6,8	5,1	4,2	4,4	4,1	3,8
Alemania	5,4	5,2	5,0	4,6	4,1	3,8	3,8	3,6	3,6
Malta	6,3	6,4	5,8	5,4	4,7	4,0	4,2	4,0	3,6
Txekiar Errep.	7,0	7,0	6,1	5,1	4,0	3,0	3,6	2,8	2,5
Turkia	8,4	9,0	9,9	10,3	10,9	-	12,2	10,6	-
AEB	8,1	7,4	6,2	5,3	4,9	4,4	4,5	4,4	3,9
Norvegia	3,2	3,5	3,5	4,4	4,7	4,2	4,4	4,1	3,8
Japonia	4,3	4,0	3,6	3,4	3,1	2,8	2,9	2,8	2,7
Islandia	6,0	5,4	5,0	4,0	3,0	2,8	2,5	2,2	2,7

Oharrak:

(p) Behin-behineko datuak.

Estazionalizatutako datuak.

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT, Erresuma Batuko Estatistika Bulego Nazionala eta Belgikako Gobernu Federala. Ekoizpen propioa.

LANGABEZI SARIRIK GABEKO LANGABETUAK, GUZTIZKO
LANGABETUEKIKO (%). HEGO EUSKAL HERRIA

